

Ura eta Urritzelki

URRITZELKI

- Iturriak, latsagiak
- Ibaiak, errekak
- Uharkak, putzuak
- Askak
- Errotak
- Erlazionatutako toponimia
- Ur-horniketa



ITURRIAK

Urritzelkin hainbat iturri dago. Herriko iturria izan dena Errekalden dago, herriaren hasieran, hain zuzen ere. Iturri horretatik hartzen zen ura, 1963an ur-horniketa egin zen arte. Badira beste iturburu batzuk ere, hala nola Etxezarrondokoa, Oiantxokokoa, Iruerrekakoa, Zaldukoa, Kaskallukoa (Orosan dago, Erroibarko muga).

Iturri gehienek ura dute urte osoan.

LATSAGIAK

Herria ibaitik hurbil dagoenez, ez da latsagirik izan; lixiba iturrian edo ibaian egiten zen.

IBAIK, ERREKAK

Erro ibaiak zeharkatzen du herria beheko aldetik. Badira zenbait erreka, arestian aipaturiko iturrietatik sortuak. Agorraldietan ere izaten dute ur zerbait Iruerrekak eta Errekaldek, adibidez.

UHARKAK, PUTZUAK

Herrian ez da uharkarik izan eta putzurik ere ez.

ASKAK

Herritik gertu bada aska bat, Errekaldeko iturriaren soberakina biltzen duena.

ERROTAK

Errota bat zegoen zubitik 200 bat metro gorago, baina zubiko harri hondarrak baino ez dira ezagutu.

ERLAZIONATUTAKO TOPONIMIA

Errekalde, Iruerreka

UR-HORNIKETA

Etkezarrondoko iturritik ura ekartzeko proiektua 1963koa da. 20 metro kubikoko biltegi bat eraiki zen 18 pertsonako herri baterako. Proiektua, inguruko beste asko bezala, Sainz de los Terreros ingeniariak idatzi zuen.